



UDALBATZARRAK 2022ko OTSAILAREN 1ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2022ko otsailaren 1ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Unai Sorarrain Urruzola
Concepcion Soria Legua

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ 2021eko abenduaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Alkizako Beleburupe guraso elkarteak aurkezturiko, 2021 urteko diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 5. Alkizako Beleburupe guraso elkarteak eginiko 2022 ekitaldirako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 6. J.I.G eta A.M. jaun/andreak eginiko eskaera aztertu.**
- 7. 2022ko langileen ordainsari-igoerei buruz, EUDEL-ek eginiko gomendioaren onespena, hala bada.**
- 8. Alkizako Udala eta Tolomendiren artean eginiko Lankidetzahitzarmenaren onespena, Tolosaldeko udalerrien informazio eta komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza partekatutako lanaren sustapenerako.**
- 9. Erretore etxeko birgaitze integralerako, Garraioa, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak 2022an argitaratuko duen "Eraikin publikoak birgaitzea bultzatzeko dirulaguntzaren**



“PIRED LOCAL” Kudeaketarako aholkularitza zerbitzuaren esleipena.

9.Beste batzuk.

10.Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2021eko abenduaren 28an ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 01/2022 Lehendakari Ebazpena eman dela. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

GOIENER	5,07
GOIENER	409,81
GOIENER	74,88
GOIENER	32,00
GOIENER	65,36
GOIENER	10,79
GOIENER	721,18
GOIENER	189,48
GOIENER	346,20
GOIENER	623,65
GOIENER	11,00
GOIENER	36,73
ANEXO ELEKTROTRESNAK	569,00



ALKIZAKO UDALA

OSCAR GALINDO	121,00
ERKIZIA AROZTEGIA	90,75
GISAT.	102,00
I-DE REDES ELECTRICAS	317,58
GOIENER	13,01
GUREAK	1,05
SOS FIRE	180,29
SOS FIRE	234,92
CALPARSORO INDUSTRIAL	25,33
ALKAIN	55,22
LAU HAIZETARA	9.827,58
DIONISIO ORMAZABAL	7,87
SEIKIN	180,29
ARGITU	166,11
SOLRED	68,04
BIREAU VERITAS	186,34
ULAH	578,33
IZADI	249,74
NORTEGAS	271,31
NORTEGAS	337,48
KUKU-LORE	64,58
ANTONIO ELOSEGUI	16,84
IZADI LABORATEGIA	96,80
UR MARA KULTUR ELKARTEA	1.210,00
K1 EKOPAISAIA	7.115,89
MAS MUJERES ELKARTEA	18,50
GOIENER	5,01
GOIENER	719,17
GOIENER	37,14
GOIENER	40,04
GOIENER	15,63
GOIENER	10,32
GOIENER	833,46
GOIENER	90,49
GOIENER	13,01
GOIENER	10,38
GOIENER	996,14
GOIENER	513,69



GOIENER	197,63
GOIENER	1.088,81

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **29.202,92** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK AURKEZTURIKO, 2021 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe Guraso Elkarteak aurkeztu duela, 2021 urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria eta dagozkion fakturak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Beleburupe Guraso Elkarteak aurkezturiko 2021 urtean emandako diru-laguntzarari dagokion zuritzea onestea.

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EGINIKO 2022 EKITALDIRAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, urtean zehar hainbat ekintza burutzen dituela. Hauen kostua finantzatzeko Alkizako Udalarari diru-laguntza eskaera egiten dutelarik.

Ikusirik 2022 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidari Beleburupe Guraso elkarteari 320,00euroko diru-kopuruko laguntza aurreikusitako dela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beleburupe guraso elkarteari 320,00 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar antolatzen dituen ekintzetarako.



BIGARRENA: 320,00 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2022 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidaren kontura.

HIRUGARRENA: Beleburupe Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

J.I.G. ETA A.M. JAUN/ANDREAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU

Ikusirik J.I.G. eta A.M. jaun/andreak eginiko eskaera, non azaltzen duen 2021eko apirilaren 7an Alkate ebazpen bidez Alkizako Lete baserriko teilatuan eta teilapean berritze lanak egiteko obra baimena eman zitzaiela eta lanak egin ez zituenez 2021eko azaroaren 8-an lan hauek egiteko obra baimena luzapena eskaera egiten dute.

Gaia azterturik, 7/1985 Legeak, Errejimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituenak eta 781/1986 Errege Dekretu Legegileak, Errejimen Lokaleko xedapenen Testu Bateratua arautzen duenak, emandako ahalmenak egikaritzuz.

ERABAKITZEN DUT:

LEHENA.- J.I.G. eta A.M. jaun/andreak eginiko baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Lete baserriko teilatuan eta teilapean berritze lanak egiteko obra baimena 6 hilabetez luzatzea. Betiere, udal baimenean Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jartzen duenari baldintzaturik.

BIGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2022KO LANGILEEN ORDAINSARI-IGOEREI BURUZ, EUDEL-ek EGINDAKO GOMENDIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengo dioen:



“ 2022KO ORDAINSARI-IGOEREI BURUZKO INFORMAZIO ZIRKULARRA

Joan den 2021eko abenduaren 29an, ***Estatuko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legea*** argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2022ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

“(...) Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneousotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2021ekoen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatik kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.”

Aurrekoa ikusita, 22/2021 Legea indarrean sartu ondoren, eta EUDELek aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jotzen da euskal udalei honakoa gomendatzea:

GOMENDIOA

22/2021 Legearen 19 Bi artikuluen edukiari dagokionez, EUDELek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, lege onartutako gehienekoa, hau da, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %2, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokionez, homogeneousotasuna mantenduz.

Gomendio honen bidez, EUDELek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan



etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berria lortu ahal izateko.

Era berean, EUDELeK berretsi du garrantzitsua dela “UDALHITZ 2008-2010 Akordioa” bere horretan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean datzalako berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio duelako. Ildo horretan, egungo UDALHITZ 2008-2010 araua betetzean egon daitezkeen hutsuneak konpontzeko tresna, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako jarraipen-mahaiak izan beharko litzateke. Gogorarazten dizuegu UDALHITZ 2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen ez-betetze puntualak zuzentzeko akordioak erraztera mugatzen dela mahai horien xedea, eta kanpoko gaiak negoziatzeko prozesurik ez irekitzeko gomendatzen da, EUDELen eta sindikatuen UDALHITZ Negoziazio Orokorreko Mahaian baitago aplikazio-eremua.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2022 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioa bere osotasunean onestea eta aplikatzea. Hau da: **22/2021 Legearen 19 Bi artikulua edukiari dagokionez, EUDELeK gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %2, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.**

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALA ETA TOLOMENDIREN ARTEAN EGINIKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, TOLOSALDEKO UDALERRIEN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHAOLKULARITZA PARTEKATUTAKO LANAREN SUSTAPENERAKO

Ikusirik Tolomendi Landa Garapen Elkarteak informazio eta komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua sustatzen duela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udalak erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.



Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela goian aipaturiko zerbitzu partekatua erabiltzeko. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia azterturik, Udaletxe honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udala eta Tolomendi Landa Garapen Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena onestea, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta Komunikazio Teknologien dinamizazio eta Aholkularitza partekatutako lanaren sustapenerako.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko lankidetzeta-hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolomendi Landa Garapen Elkarteari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

ERRETORE ETXEKO BIRGAITZE INTEGRALERAKO, GARRAIOA, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDA MINISTERIOAK 2022an ARGITARATUKO DUEN “ERAIKIN PUBLIKOAK BIRGAITZEA BULTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAREN “PIRED LOCAL” KUDEAKETARAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUAREN ESLEIPENA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du erosi berri duen Erretore etxeke birgaitze integralerako, garraioa, mugikortasun eta hiri agenda ministerioak 2022an argitaratuko duen eraikin publikoak birgaitzea bultzatzeko diru-laguntzaren “Pired Local” kudeaketarako aholkularitza zerbitzuak kontratatzea.

Ikusirik, aipaturiko lanak egiteko aurrekontu bat eskatu dela LAIA INGURUMEN ZERBITZUARENA, hain zuzen ere.

Ikusita Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal ez materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.



Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA

LEHENA: LAIA INGURUMEN ZERBITZUAK ENPRESARI, Erretore etxeko birgaitze integralerako, garraioa, mugikortasun eta hiri agenda ministerioak 2022an argitaratuko duen eraikin pulbikoak birgaitzea bultzatzeko diru-laguntzaren “Pired Local” kudeaketarako aholkularitza kontratua esleitzea 2.688,00€ (BEZa kanpo) diru kopuruan, gastua 227.929.00.07 kontu sailaren kontura “Aholkularitza: Next generation” egingo delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri LAIA INGURUMEN ZERBITZUAK enpresari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

9.1. ALKIZAKO ERRETORETXEAN IGOGAILU BAT IPINTZEKO EGIKARITZE PROIEKTUA EGITEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du erosi berri duen Erretore etxean igogailu bat ipintzeko egikaritze proiektua egiteko zerbitzuak kontratatzea.

Ikusirik, aipaturiko lanak egiteko hiru aurrekontu eskatu direla, Eba Erkizia Brion, Juan Ramon Ojeda Marin eta Juan Antonio Herrarte Azpeitia arkitektoei hain zuzen.

Ikusita, ekonomikoki aurrekontu onuragarriena EBA ERKIZIA BRION arkitektoak aurkezturikoa dela.

Ikusita Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal ez materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.



ALKIZAKO UDALA

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: EBA ERKIZIA BRION Arkitektoari, Alkizako Erretore etxean igogailu bat ipintzeko egikaritze proiektua egiteko zerbitzu kontratua esleitzea 8.655,46€ (BEZa kanpo) diru kopuruan, gastua



682.920.00.01 kontu sailaren kontura “Erretore etxea konponketa lanak” egingo delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Eba Erkizia Brion, Juan Ramon Ojeda Marin eta Juan Antonio Herrarte Azpeitia arkitektoei ematea.

9.2.HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO SISTEMA BERRIA EZARTZEARI ONESPENA EMATEA

Udal taldeak ondorengoa proposatzen dute:

Hiri-hondakin solidoak biltzeko sistema berria ezartzea

Indarrean dagoen hondakinen bilketa-sistema Alkizan erakutsi du ez dela eraginkorra hondakinen gaikako bilketa indartzeko. Aurretik susmoa baino ez zena, egiaztatu egin da 2021an zehar Tolosaldeko Mankomunitateak herrika bilketaren datuak jasotzen hasi denean.

2021ko urtarriletik gaikako bilketaren datuak biltzen dira herrika Mankomunitateko herri guztietan. Ordura arte udalerrri txikien bilketaren datu zehatzik ez da izan eta herri txiki guztien bilketa datu metatu moduan jasotzen zen. Orain Alkizako hondakin-guneetako edukiontzi bakoitzean zenbat kilo hondakin biltzen diren jakitea badago.

Hurrengo taula ageri dira Alkizan gaika eta hileka zenbat hondakin biltzen diren.



ALKIZAKO UDALA

Jatorria Origen	Bilketa sistema	Hondakina Residuo	Urtarrila Enero	Otsaila Febrero	Martxo Marzo	Apirila Abril	Maiatza Mayo	Ekaina Junio	Uztaila Julio	Abuztua Agosto	Iraila Septiembre	Urria Octubre	Azaroa Noviembre	Abendua Diciembre	GUZTIRA – TOTAL			
															Kg.	%	Kg/bizt.	
ALKIZA: ETEKO HONDAKINAK RESIDUOS DOMICILIARIOS	ATEZATE PIUERTA PUERTA	Errefusa Rechazo														0	%0,00	0,00
		Biohondakina														0	%0,00	0,00
		Biorresiduo														0	%0,00	0,00
		Kartoa Cartón comercial														0	%0,00	0,00
	EDUKIONTZIA CONTENDOR	Errefusa Rechazo	4.633	3.346	3.711	4.277	3.951	4.230	4.275	4.769	4.054	4.133	5.044	3.105	49.528	%53,91	133,50	
		Beira Vidrio	3.647	0	0	2.391	874	1.609	0	1.763	2.725	698	1.704	1.640	17.051	%18,56	45,96	
		Biohondakina														0	%0,00	0,00
		Biorresiduo														0	%0,00	0,00
		Ontzi arinak Envases ligeros	991	939	1.103	1.030	870	1.348	914	1.178	945	805	1.272	1.277	12.671	%13,79	34,15	
		Papera Papel	604	834	790	1.006	784	1.373	658	1.243	782	715	947	1.080	10.816	%11,77	29,15	
		Arropa Textiles	106	92	121	127	127	174	127	122	143	168	143	105	1.554	%1,69	4,19	
		Landare olioa Aceite vegetal	142								106					248	%0,27	0,67
		GUZTIRA SORTUTAKOAK TOTAL GENERADO	10.123	5.211	5.725	8.831	6.606	8.734	5.974	9.181	8.649	6.519	9.110	7.207	91.869	%100,00	247,63	
		GAIKAKO BILKETA TOTAL RECOGIDA SELECTIVA	%54,23	%35,79	%35,17	%51,57	%40,19	%51,57	%28,44	%48,05	%53,13	%36,60	%44,63	%56,92	%46,09			
	BIZTANLEAK POBLACIÓN(NE 01/01/2020)	371	371	371	371	371	371	371	371	371	371	371	371	371				
	Kg/biztanle/egunean Kg/hab/día	0,88	0,54				0,57	0,78	0,52	0,80	0,78	0,57	0,82	0,63				

Nabarmen ikusten da Alkizan biltzen diren hondakinen % 53, 9a errefusa dela eta % 46,1 baino ez dela biltzen gaika. Datu hori Tolosaldeko okerrena da eta eskualdeko gaikako batez besteko bilketa-datua baino 20 puntu txikiagoa dela.

Udalaren helburua izanik hondakinen gaikako bilketa handitzea eta ikusirik orain arteko bilketa-sistemarekin hobekuntzarik ez dela gertatu, Tolosaldeko Mankomunitatearekin harremanetan jarri zen. Mankomunitateak aholkaturik hondakinen karakterizazioa egin zen 2021eko azaroan. Azterketak erakutsi zuen errefusaren edukiontzian bildutako hondakinen % 43,7a baino ez zela errefusa eta gainerakoa materia organikoa (% 42) eta ontziak (% 15,2) zela.

Bilketa-datuak eta karakterizazioaren emaitzak aintzat hartuta bilketa-sistema aldatzea erabaki zen. Horretarako Mankomunitateko teknikarien jarraibideak hartu dira kontuan.

Sistema berriak ezaugarri hauek izango ditu:

- Plazako auzo-konpostetarako gunea kendu egingo da.
- Bilketarako hiru gunetan materia organikoa biltzeko edukiontzia ipiniko da.
- Bilketa astean bitan egingo da
- Edukiontzietan txipik ez da ezarriko oraingoz
- 2022an ez da bilketa-tarifa handituko
- Urtean zehar bildutako hondakinen karakterizazioa egingo da 3 edo 4 bider.



ALKIZAKO UDALA

- Udalak herritarren artean kontzientzia-ekimenak bideratuko ditu. Herritarren artean materia organikoa biltzeko kuboak eta zabor-poltsak banatuko dira.
- 2023an aldaketaren emaitzak berraztertuko dira eta horren arabera hartuko dira erabaki osagarriak.

Udalak proposamen hau esplikatu zien herritarrei 2022ko urtarrilaren 28an eginiko herri-batzarrean. Bertaratutakoen artean ez zuen kontraktasunik eragin.

Hori guztia aintzat hartuta, Alkizako udalaren osoko bilkurak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosako Mankomunitateari jakinaraztea, Alkizako udalak udalerrian, hondakin-bilketarako sistema berria ezarri nahi duela, hau da, materia organikoa biltzeko edukiontziak ezarri nahi dituela, horretarako, Tolosaldeko Mankomunitateari eskatuko zaio ahalik eta eperik laburrenean indarrean jar dezala sistema berria.

HAMARGARREN PUNTUA **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.00etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK